

PIERRE TOULGOUAT

Voisinage et solidarité dans l'Europe du Moyen Age
“Lou besi de Gascogne”

G.-P. Maisonneuve & Larose, París, 1981. 336 orr., 24 x 15,50.

Hona liburu bat, itxuraz bederen, gure ganik urrun dabilana: Egilea bera izenez bretoina; jaiotzaz eta egoitzaz normandiarra; Europan zehar bere karavanarekin asko ibilia da, nahiz bere ikerlan gehienak Landes-aldeko etnografiari eta historiari lotuak izan. Liburuaren azpтитuluak dioen bezala, Gaskoinia-ko “lou besi” edo “auzoez” ari zaigu oraikoan.

Euskaldunek ordea ez dugu behar ahantzi gure auzo lehen eta ahaide hurbilak ditugula Gaskoinak. Bestela berriz “tribalismoan” erortzen gara, gaurko zenbait “euskal” (?) historialari berri bezala (ikus gure Euskal Herria Barduliara mugatzen digutenen Historia Hiztegia).

Dena dela, sarreratik beretik aitortzen digu Pierre Toulgouat-ek egundainotik uste izan duela “auzo-goaren” legea eta ohitura Euskal Herritik zetorrela: Gure Herrian sortu ondoan, Pirinioen bi aldetara hedatu zitekeen, mendetan zehar, “bezi” izena emaiten ziotela, gaskoinez, iparraldetik, eta “vecino” berriz, gaztelaniaz, hegoaldeetik (ikus 13. orrialdean eskualde horien eremua). Nola ez ohart, 1120 ean Baiona-ko hiriari Akitaniako Gilen IX.ak eman araudian agertzen zaigula lehen aldikotz, “bezi” izenpean, auzo legea? Nola ez ikus, Euskal Herrian bezala, Gaskoinia osoan dirauela gaurdaino “lehen auzoa”-ren ohitura sakratuak?

Baina ikerlan honek erakusten digu, orenen buru, auzogoaren ohitura Europa Iparralde guzian agertu izan dela “primary fact” bat bezala. Gizonak bere-ber gaindi ez ditzaken ezinbestek, garaitu ohi ditu non nahi, auzo-legeari esker. Ez dute beraz Euskaldunek berek asmatu auzolegea, baina Euskaldunek dute, bestek ez bezala, oso begiratu gaurdaino, aintzineko ohitura hori ere. Horra labor emana gure ikerlearen tesia. Oinarriak aldiz aurkitzen ditugu gaurko etnologoen —bereziki Gaskoiniakoen eta Euskal Herrikoen— lanetan, alde batetik, Erdiaroko historiagilen baitan bestetik.

Euskal gizartea aztertu dutenek aspaldian errana baitigute “Auzoa dela euskal gizartearen instituzio sustraiekoa, oinarrizkoa eta muin muinekoa” (Zabala'tar Federiko ta beste batzuek, *Euskal Herriko historiaren laburpena*, Donostia, 1971, 20. orr.), ez dugu hemen zehaztasunetan sartzerik, ikus-

teko zer den, euskaldunentzat ala gaskoinentzat, auzogoaren ohitura. Dezagun erran bakarrik, Toulgouat jaunak irakurri dituela gure etnologo nagusi guziak, bai atzokoak bai gaur gaurkoak, hegoaldekoak nola iparraldekoak: hor ditugu B. Echegaray, J. M. Barandiaran eta W. Douglass; W. Webster, J. Caro Baroja eta M. Lafourcade, bakarrik lekuko zenbaiten izenak aipatzeko. Horien eta beste askoren erranak biribilduz, badakigu euskal auzoak bi osakai dituela: etxea eta lurra. Bainan etxea da premiatsua eta hiribilduak agertzen direnean, 1164 ean, Lizarrako fueroaren arabera, herriko auzoaren eginkizun eta eskubideak ukaiteko, behar du edonork urte bat eta egun bat hartan etxe berean (Qui peut être voisin? P. Toulgouat, op. cit. 73.orr.).

Bai etxea dauka euskaldunak eskubide ta eginkizunen gai. Etxeari dagokio familiako bizi ta hilei aterbe eta geriza eskaintzea, bai eta auzoei jaiotza, ezkontza, heriotze, beharrordu, elkarlan askotan laguntza ematea. Etxe berak ere ordaina hartze du auzo beren ganik eta baditu bere eskubideak elizabide, elizaleku, etxelur, herrilurretako iraztor edo herriko kargu askoren gainean.

Etxeko jaun eta anderek, seme ta alabek beren etxe-ondoaren ararteko dituzte ukaiten, auzotegian behin, eta gero herrian edo hirian, beren izen-deiturak, eta auzo edo herritar kondu dituzten esku ta eginbideak. Horri datxikola badaukagu gure ondoriotasun lege berezia; burasok seme edo alaba gehienari uzten baitiote ondoriotasunez osorik etxea.

Euskal Herrietako ohitura horiek guziak, guti gora behera, bizirik zauden ordea gure Herriaren iparraldetik eta ekialdetik, Gaskoinia guzian, mende honen hasieran oraino. Baditu hemen ere lekukotasunak, Toulgouat jaunak: hala nola, berak argitaratu lanez bestalde (“La vie rurale dans l’ancienne Lande”, Pau, 1975 eta “La Maison de l’ancienne Lande”, Pau, 1977), J. F. Soulet-en lana (“La vie quotidienne dans les Pyrénées sous l’Ancien Régime”, Hachette, 1974) edo J. Poumarède-na (Les successions dans le Sud-Ouest de la France au Moyen-Age); L. Papy eta Ch. Higounet-enak ez aipatzeko.

Gehiago dena, historian gora iganez geroz, erdiaroraino, feudalismoa bazter orotan sartua den uneraino, Espainian ere berdin, gizarte osoa mailkatzen da erregeren gorteetako aitonen semetatik, azken mailletako “petzero” —etaraino. Ohargarri da halere, Espainia— Iparralde guzian, auzolegea, bere eskubide eta eginkizunekin, onartua dela eta begiratu. C. Sanchez Albornoz-en lan batzuek erakusten digute, hemen ere, mende honen hasieran, aintzineko legeari jarraikiz, auzolanetan ari zirela nekazariak Gaztelako herrilur zabal askotan (ikus ere J. Costa “Derecho consuetudinario y económico popular de España”).

Pierre Toulgouat-en liburuaren I. zatia —zati nagusia, 244. orrialderaino doana— luze eta zabal mintzo zaigu beraz Euskal Herrian, Gaskoinian eta Espainia-Iparrean auzolegeak izan duen garrantziaz eta itxura bereziaz. Auzolegea ez baita bakarrik “lehen auzoaren”, hots gure ikerleak dion bezala, Soziologoak aipu duen “proximus” edo hurbileko auzoaren ohitura, baina bai ere Legelariaren “vicinus” edo auzo kidearen legezko estatutua.

II. zatiak aldiz —zati laburrenak, 245.orrialdetik 302.eraino— erakusten digu nola gure eskualdetako “auzogo” berezi hori, Erromatarren eta Ara-been eragin zerbait jasan badu ere, berez aintzinagotik zetorrela, eta geroago, Germaniar gizaldeen indartu zutela.

Bazuen jadanik Toulgouat jaunak ohar asko artetik sarturik: ¡Hala nola Nafarroako fuero generalean (123 7) nabari dela 654 eko “Liber Judicorum” edo “Fuero Juzgo”-aren eragina, bai ta ere Alario Bisigodoen erregearen “Breviarium” edo “Lege labor” aipatua, Landes-etako Aturrin —Aire/Adour— argitaratu zela 506 an.II. zati honetan aldiz ikusten dugu auzolanaren eta auzolegearen aztarnak aurkitzen ditugula Germaniar gizaldek taldeko lurgintza eta taldeko hazkuntza praktikatu duten Europako eskualde guzietan.

Italia iparraldean agertzen da lehenik Lonbardiarren marka, hauen gatik baititezke sortu, eskualde horretan, “vicinia” edo “vicinanze” deitu paroikia edo basabazterretako herri-libreak.

Inglaterran aldiz, eta Normandian ere naski, XI-XII.mendetan, “neighors” edo auzo-gizonak aipu dituzte, lekukotasun beharretan direlarik, zerbait auzi xuritzeko. Eta hain zuzen auzietan auzoei dei egiteko ohitura horrek, garrantzi izigarria izan ornen du egundainotik Europa iparraldeko erresumetan, eta bereziki Norvegian eta Islandean.

Baina guretzat harrigarriena, Nederlandia edo Holanda-ko Estatu-Batuetan aurkitzen dugu: Hiri ta herriska bakoitzaren ohiturak bilduak dituzte alabainan aspaldian eta idatziak, bereziki Frisia aldean, “gildeboeken” edo “guilda” liburu batzuetan. Eta Westerwolde-ko “guilda-liburua”-ren II. zatian badaude 14 artikulua, eritasun eta heriotz-orduetan auzoek elgarri zor dioten laguntzaz: Euskal Herrian idatziak iduri dutela aitor du Pierre Toulgouat-ek (op. cit. 278. orr.).

Azken adibide honek emanen die agian, Euskal Herriko historiagile ta antropologoei, Toulgouat jaunaren lana ikertzeko gogoa! Han edo hemen euskal edo erdal hitz asko desitxuraturik aurki dezakete. Ez bedite lotsa! Beren ikerketa urrunago eremaiteko, hatzemanen dute azken 12 orrialden bete bibliografia.

P. Charritton